

SORGINXULO LESAKAKO KULTUR-BILGUNEA

28. BILERA AKTA

EGUNA: URRIAK 1, LARUNBATA

ORDUA: 9:30

TOKIA: HARRIONDOA KULTUR ETXEA – ALASTA GELA

BERTARATUAK

GURE ARRANO ELKARTEA
OTXOGORRIENEA GURASO ELKARTEA TANTIRUMAIRU IKASTOLA
BORTZIRIETAKO BERTSO ESKOLA
IRAIN GURASO ELKARTEA
GEROA BAI UDAL TALDEA
MAIRU ANTZERKI TALDEA
TANTIRUMAIRU EUSKAL FOLKLORE TALDEA
LESAKAKO ABESBATZA
MUSIKA ESKOLA
LESAKAKO SOINULARIAK
TRIKITIXA ELKARTEA
TXISTULARI TALDEA
EH BIDU TALDEA

AINTZINAKO AKTA ONARTZEA

Onartzen da.

2022-2023 IKASTURTEKO BILEREN EGUTEGIA

Azaroak 12, urtarrilak 14, martxoak 4, apirilak 22, ekainak 3.

UDAK AZKENAK ZIKLOA

Azkeneko sorginxulon 2021eko zikloa baino zerbait ttikiagoa egitea pentsatu zen, abuztu bukaera eta irailan eta ekitaldi batzuk aipatu ziren, erraldoiak, muxikoak, kontzerturen bat... aurrekontuak ikusita eta zerbait egin nahi zela kontutan hartuta, azkenean hiru ekitaldi antolatu ziren, erraldoiak, kantu bira eta kontzertua. Irailako agendan sartu zen eta kartel berezi bate ere egin zen.

Kantu Biraren inguruan, abesbatzakoek aipatu zuten polita izan zela bino motza. Beti-Gazteko kanto taldekoak ere elkartu ziren. Behar bada pixkat luzatzea komeniko zen, dantza sartzea...jendeari kostatzen zaio animatzea.

Erraldoiak, ongi joan zen, buruhandiak ez ziren atera, iaz baino lasaiago bino egia erran haur batzuk buruhandiak espero zituzten. Ekitaldi honetan segurtasuna kontutan hartu behar da, kaleak moztu, kotxeak bideratu...

Kontzertua, ez zen jende gehiegi orduan arkupetan egokiagoa plazan sakabantuagoa egonen zen. Arazoa hurrengo eguneko zikinkeria, bizilagunak egon omen ziren garbitzen, gainera euria ari zuen eta haurrentzako estalpe bakarria hori da.

Hurrengo urtera begira igual ekainan ere egitea pentsatzen ahal da, ekaina-iraila.

2022-2023 POSAMENAK

Zer antolatu sorginxulo bezala?

Azkeneko bileran egun berezi bat edo jardunaldi bat antolatzea planteatu zen, agerpen bat eragile guztiekin. Pentsatuz jendeak ez duela ongi ezagutzen ze talde dauden, ze dinamika duen bakoitzak...haurrei begira...erakustaldi baten modukoa. Oholtza bat jarri eta bertan eragile bakoitzak zerbait egin, erakutsi eta animatu parte hartzera, lotzen ahal da larubateko merkatu ttikiarekin, kultura azoka, eguna...horrelako zerbait. Hurrengo bilera zehazteko uzten da.

GAU BELTZA

Iazko arrakasta ikusita zerbait antolatzeko elkartzen hasi dira. Helburua da egun hau ohitura bihurtzea eta urtero ospatzea.

DIRULAGUNTZEN ARAUDIAN SORGIXULOREN PARTAIDETZA

Dirulaguntzen araudian, atal batean, kulturbilguneke parte aktibo izan beharko dela zehazten da. Honen inguruan kezka badago, badaude eragileak agertzen ez direnak bino araudian ere ez da zehazten parte aktibo hori, beraz zehaztu beharko zen nola penalizatu ez agertzea.

Bertaratuen artean aiapatzen da penalizatu baino bai aktiboak direnak nolabait saritu egokia izanen zela, positiboki egin, penalizatu hitza ez da egokia ikusten. Udalatik azaroaren 12rako aurreproposamen zehatzago bat ekarriko da.

Dirulaguntzen inguruan eragileek aipatzen dute esleipenaren ebazpena ea lehenago atetzerik izanen zen. Hau aurrekontu orokorren onarpenarekin lotuta doa, baina aurreratzen ahal da deialdia eta lana aurreratu ebazpena leheniago ateratzen saiatzeko.

AGENDA - AURREKONTUA

Hurrengo hilabeteetarako agenda erakusten da, ekitaldien informazioa ematen da.

Aurrekontua guztiz konprometitia dagoela ere azaltzen da, gehiago gastatu da eta gauza gehiago egiteko ez dago dirurik.

Ferien inguruan ere hitz egiten da, bertsoak Estitxuk egitea planteatzen da beti bezala, pilota aipatzen da Arkupekoekin solastu dela, asteazkeneko trikitiak baieztatzen dira eta dantzaldirako proposamenik edo baden galdetzen da. Mainerrek Patxi Aiorga (Jeiki Hadi) kontaktoa pasatzen du.

HARRIONDOA 10 URTE

2023ko abenduan Harriondoa Kultur Etxeak 10 urte beteko ditu. Oraindik urruti dago bino alde batetik aurrekontuetan kontutan izan beharko da zerbait berezia eginen den edo.

KEZKAK ETA GALDERAK

Ibanek galdetzen du ea uste den komunikazioan arazoak dauden, ea informazio ailegatzen de. Orokorrean ez da arazorik ikusten behar bada kontrakoa gehiegi, eta honek batzutan kontrakoa eragiten du, ez begiratzea ailegatzen dena.

Ibanek aipatzen du pantaila bidez Harriondoan sarreran edo agendaren iragarpenaren bukle bate do egitea, informazio orokorra, ekitaldien informazio zehatza....Harriondoa behar bada ez da leku egokiena ikusten, herri barrurago ikusten da, nola, non????.

Hurrengo bilera, azaroak 12,, 9:30etan